



UDALBILTZAKO PARTZUERGOKO KONTSEILU NAGUSIA

2019ko MAIATZAREN 3an BURUTUTAKO BATZARRA:

LABURPENA

- 1.- Aurreko Kontseilu Nagusiko akta onartu da bilkura honen lehenengo puntuan.
- 2.- Lehendakariaren ebazpenen berri eman da bigarren puntuan.
- 3.- 2018ko Partzuergoko eta Euskal Garapen eta Kohesio Fondoko kitapenen zio nagusiak azaldu eta onartu egin dira hirugarren puntuan.

Horretaz gain, 2019ko sarreraren gaineko informazioa ere eman da eta Lehendakariak falta diren herriei kuota hauteskunderen aurretik ordaintzeko eskatu die.
- 4.- Lurgida eta Hartu Eman proiektuen inguruko informazioa luzatu da laugarren puntuan.
- 5.- Ergoienako Udalaren irteteko eskaera onartu da bosgarren puntuan. Horretaz gain, herrien parte-hartzearen ikuspuntutik, Partzuergoaren barne osasunaz ere eztabaidatu da.
- 6.- 2019ko ekainaren 15etik aurrera Jabi Asurmendi jauna Udalbiltza Partzuergoko Lehendakari eta zuzendari eta Andoni Gartzia jauna lehendakari orde izatea, Arantza Ruiz de Larrinaga andrearen dedikazioa 2019ko ekainaren 30a arte luzatzea eta Inhar Iraizotz jaunaren kontratuzko harremanak ekainaren 15etik aurrera ere jarraitzea erabaki da seigarren puntuan.



7.- Estatutuen eguneratzea erabaki da zazpigarren puntuan. Hala, aurrerantzean ohiko kuota zati bakarrean ordaindu beharko da, urte naturalaren ekainerako, beranduenez, baina atzeratzen diren udalerriei ez zaie inolako errekariorik jarriko, interes legalez gain. Partzuergoa osatzen duten herrien zerrenda eta kuota sistemaren eguneratzea egingo da estatutuetan eta hauek publikatuak izango dira.

8.- Partzuergokidea den herriren batetako idazkari-kontuhartzaileak Udalbiltza Partzuergoko idazkari-kontuhartzailearen amatasun baja akumulazio bidez egin nahiko balu, Zuzendari andreari jakinarazteko eskatu du Lehendakariak zortzigarren puntuan.



UDALBILTZA PARTZUERGOAREN KONTSEILU NAGUSIAREN BATZARRALDIKO AKTA

Oiartzungo Udalean, bi mila eta hemeretzi maitzaren 3an, arratsaldeko 18:05ak direnean bigarren deialdian bildu egin dira ondoren zerrendatzen diren udaletako ordezkariak, zeintzuk alde aurretik beren izendapena aurkeztu baituten.

Bertaratutako Udalak:

	UDALA
1	Aduna
2	Alegia
3	Altzo
4	Amoroto
5	Antzuola
6	Araitz
7	Arakaldo
8	Asteasu
9	Astigarraga
10	Ataun
11	Atxondo
12	Bera
13	Dima



UDALBILTZA
PARTZUERGOA

14	Etxalar
15	Gatika
16	Goizueta
17	Hernani
18	Oiartzun
19	Otxandio
20	Usurbil

Ez dira bertaratu ondoko udalak: Aizarnazabal, Ajangiz, Anoeta, Aramaio, Arantza, Arbizu, Areso, Arratzu, Artea, Aulesti, Bakaiku, Barrundia, Basaburua, Berastegi, Berriatua, Berrobi, Ea, Elduaien, Ergoiena, Errigoiti, Etxarri-Aranatz, Etxauri, Ezkio, Getaria, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Itsasondo, Iturmendi, Lakuntza, Larrabetzu, Leaburu-Txarama, Legutio, Leitza, Lezo, Lizartza, Mañaria, Markina-Xemein, Meñaka, Mendaro, Munitibar, Muxika, Olazti, Ondarroa, Oñati, Orendain, Oresa, Segura, Uharte-Arakil, Urdiain, Zaldibia, Zerain, Zestoa, Ziordia, Ziortza-Bolibar, Zizurkil, Zubieta.

Ruben Gómez jaunak Liginagako Herriko Etxearen izenean parte hartu du gonbidatu gisa; hitzarekin baina botorik gabe.

Luis Intxauspe lehendakari jaunak zuzendu du bilkura.

Udalbiltzako zuzendari bezala, hitzarekin baina botorik gabe Arantza Ruiz de Larrinaga andereak hartu du parte.



Udalbiltzako teknikari bezala, Argitxu Etxandi eta Ainara Iraeta andereak eta Arkaitz Almortza eta Inhar Iraizotz jaunek hitzarekin baina botorik gabe parte hartu dute.

Parte hartu eta ekitaldiaren fede ematen du Udalbiltza Partzuergoko idazkaria den Eguzkiñe Aiesa andreak.

Quoruma dagoela ziurtatzean, bilerari hasiera eman zaio, honako edukiak landuz:

LEHENA.- Aurreko akten onarpena:

Luis Intxauspe lehendakariak egin du puntu honen azalpena.

Zuzenketarik edota ekarpenik proposatu ez denez, aurreko bilkurako akta aho batez onartua izan da.

BIGARRENA.- Lehendakariaren ebazpenen berri eman.

Lehendakari jaunak azkeneko Kontseilu Nagusiaz geroztik emandako ebazpenen laburpena jasotzen duen zerrenda emailez bidali zela gogorarazi du. Alta, gastuen onarpena ez diren gainerako ebazpenen azalpen laburra eman du, hala nola:

- 3/2019 ebazpenean komunikazio teknikariari jarduna igo zitzaioela, astean 17'5 orduko jarduna izan beharrean otsailetik aurrera 27'5 ordukoa izanik.
- 4/2019 ebazpenaren bidez ordura arte Udalbiltza Elkarteko langile zen Argitxu Etxandi andrea Udalbiltza Partzuergoaren langile izatera pasa zela, horretarako 2018an egindako teknikarien lan poltsarako prozeduran parte hartu eta Ipar Euskal Herriko lurralde juridiko-administratiboan lehenbiziko gelditu eta gero.
- 8/2019 ebazpenaren bidez 2018ko aurrekontuetan sortu gabe zegoen sarrerren partida berria sortu zen.



- 11/2019 ebazpenean idazkaria Udalbiltza Partzuergoaren tramite elektronikoak egiteko ahaldu zen.
- 13/2019 ebazpenean Partzuergoko batzordeetan aholkulari bezala parte hartzen duen kidegoari kilometraje gastuak ordaintzea onartu zen, teknikari eta batzordekideei aplikatzen zaizkien baldintza, betebeharrak eta zuriak baldintza berberekin.

Hitzen tartea zabaldua ez da ekarpenik egon.

HIRUGARRENA.- 2018 urteko kitapenak.

Idazkari andreak egin du puntuaren azalpena, bilerarako bidalitako dokumentazioaren artean zeuden kontu-hartzaileen txostenen gainean.

Alde batetik, 2018ko Partzuergoaren kitapenari dagokionez, 501.095 euroko sarrerak eta 342.145,93 euroko irteerak izan dira, 158.949,07 euroko emaitza positiboa izanik. Azaldu denez, sarrera eta irteeren artean horren alde handia izatearen arrazoia, 2017an izandako likidezia arazoa da. Hau da, Gipuzkoako Foru Aldundiari ordaindu behar izan zitzaion diruak likidezia arazoa ekarri zuen 2017an, baina 2018an diru hori hitzarmenen bidez berreskuratu zen. Horretaz gain, Partzuergoaren eskubidea ziren atzeratutako kuotetan ordainketak izan dira, gutxika eguneratzen ari delarik.

Gastuei dagokienean, Udalbiltzan Bagabiltza prozesuan eta ondorengo Kontseilu Nagusian adostutako proiektuen gauzapenean ezin izan zen nahi beste urrats praktikorik eman teorizazioan eta estrategiaren definitzean egon zelako lanik handiena eta, hortaz, 2018an ez zen espero beste gasturik izan.

Hortaz, diruzaintza gerakina, txostenak jasotzen zuen moduan 179.432,65 eurokoa da 2018an.



Bestalde, Euskal Garapen eta Kohesio Fondoari dagokionean, 2018an Partzuergotik transferitutako 500'00 euroko sarrerek eta finantza gastuetan izandako 96'00 euroak baino izan ez direla azaldu da, ez baita ia mugimendurik egon. Honekin batera, aurreko urteetatik mailegatuta zeuden 17.000 euroetatik 6.000 itzuli ziren 2018an, 11.000 faltaz. Beraz, 52.342,86 euroko diruzaintza gerakina du EGKfK 2018ko abenduaren 31ko datan.

Gaia eztabaidagai jarri denean, ekarpenik izan ez denez, zuzenean bozketara jo da, bi kitapenak aho batez onartuak izanik, Amorooren abstentzioaren salbuespenarekin.

Aurrekoaz gain, 2019ko sarreren inguruko balantze txikia ere egiteko beharra ikusi da. Azaldu denez, partzuergokide diren herrien artean kuoten %55a kobratu da, jasotzeko 35 herriren kuotak falta direlarik, 187.500 euroko batura egiten dutenak. Ahal izanez gero, kuotak hauteskunderen aurretik ordaintzeko eskaria luzatu du Lehendakari jaunak, hauteskunderiek eragin ohi duten ekipo aldaketek bai Udalei nahiz Partzuergoari ekar diezazkieketen arazoak ekiditeko.

LAUGARRENA.- Abian dauden proiektuen berri ematea.

Arakaldoko ordezkari bezala Batzorde Eragileko kide den Asurmendi jaunak eta teknikaria den Iraeta andreak egin dute puntu honen azalpena.

Lehenik, LURGIDA (mapa turistikoa) proiektuaren inguruko azken informazioa eman dute:

Udaletara formularioak bidali zirela baina oso gutxi bete direla adierazi du Asurmendi jaunak. Formularioak betetzeko eskatu du, proiekturako garrantzitsua delako.



Proiektua aurrera doala ere azaldu du Asurmendi jaunak, aplikazioan aurreratzen ari dira orain. Era berean, ondare inmaterialean ere aurrera urratsak ematen ari dira. Autokarabanez eta kanperrez lo egiteko etxaldeak lortzeko asmoa zegoela birgogorarazi du; hoguei etxalde inguru lotu dira orain arte.

Etxaldeek autokarabana eta kanperrei lo egiteagatik ez diete kobratzen, baina gero bertan ekoizten diren produktuak erosi ohi dituzte erabiltzaileek. Orain arte lortutakoez gain, interesatuta egon daitekeen etxalde gehiago ezagutzuz gero, teknikariekin edo Batzorde Eragileko kideekin harremanetan jartzeko eskatu dute Asurmendi jaunak eta Iraeta andreak.

Bigarrenik, HARTU EMAN edo Esperientzien Bankuaren inguruko azalpenak eman dituzte: Herrietan egiten diren esperientziak ezagutzera eman eta beste herriekin partekatzeke proiektua da. Energia burujabetza, ekonomia sozial eraldatzailea, euskara, politika feministak eta partehartzea, elikadura burujabetza, etxebizitza eta hirigintza eta lurraldea aukeratu dira esparru moduan. Webgunean herrialdeka ere aukera daiteke proiektuak ikusterakoan.

Ildo honetatik, proiektu desberdinen fitxa nahiko zehatza zintzilikatu da webgunean. Laburpentxoak eta ahal izan denetan bideoak ere jarri da.

Egun, guztira, hogeita hamar proiektu daude jasota, ideia bankua etengabe elikatzen joatea bada ere. Esperientziarik aportatu nahi izanez gero, harremanetan jartzeko gonbita egin zaie partzuergokideei.

Behin hauteskundeak pasata, egoera baretu eta Udalen osaketa egitean, proiektu honen inguruko mintegia egiteko asmoa dagoela azpimarratu du Iraeta andreak.

BOSGARRENA.- Ergoienak Partzuergotik ateratzeko egindako eskaera.



Lehendakari jaunak egin du puntu honen azalpena. Azaldu duenez, kuota atzeratuak eguneratzeko ariketa egiten ari den honetan, hainbat herrirekin aspaldian izan gabeko harremana egin du ekipo berriak, besteen artean, Ergoienarekin. Herriak Partzuergotik irteteko nahia adierazterakoan, estatutueta azaltzen den kudeaketa martxan jarri eta beren betebeharrak bete dituztela azaldu du, atzeratutako kuotak ere ordainduz. Hori dela eta, Ergoienari Partzuergotik irteteko eskaera onartzea eta akordioa Ergoienako Udalarari jakinaraztea proposatu du.

Gaia eztabaidagai jartzerakoan, irteteko nahia azaltzeko Ergoienak zein arrazoi jarri duen galdetu da. Zuzendari andreak hiru herri txiki izanda Udalbiltzara ordezkariak bidali eta aktibo izateko zailtasunak dituztela arrazoitu zutela erantzun du.

Horretaz gain, irteera prozedura zein den ere galdetu da. Kontseilu Nagusiari eskaera era egokian bidaltzea, zor guztiak kitatzea eta Kontseilu Nagusiaren onarpena beharrezkoa direla azaldu da. Idazkari andreak, gainera, gogorarazi du estatutuen arabera zorraren hamarkoitza ordaintzeko eska dakiekeela.

Bat-batean herri pila bat ateratzea aurreikusten ez bada ere, zorra egongo balitz geldituko lirakeenen artean kitatu beharko luketen kezka agertu du Alegiako ordezkariak. Estatutueta hamarkoitza ordaintzearen tresna egonda halakorik ematea zaila dela erantsi du Astigarragako ordezkariak.

Usurbilgo ordezkariak arrazoiei erreparatzearen garrantzia azpimarratu du. Zuzendari andreak azaldu du hasieratik (2001etik) zeuden herri batzuk orduz geroztik aktibatu ez direla. Partzuergoan ordena jartzeko asmoz haiekin harremanak egin direla eta haietako batzuk erakarri egin direla gogorarazi du (Gatika eta Amoroto) adibideak jarri dira), baina beste batzuek ez aktibatzea erabaki dutela. Azken hauekin egoera normaltzea erabaki dela esan du, izena egoteagatik egoteak merezi ez duela iritzita.

Lehendakari jaunak erantsi du normalizazio prozesu horren baitan, helegite asko



jaso zirela Espainiar Estatuaren partetik eta herri batzuek beldurra agertu dutela (politikoa edota idazkariena). Azken asteotan aldeko sententziak jasotzen ari garela jakinarazteko probestu du: Ezkio-Itsaso, Lezo, Ea, Lekeitio, Larrabetzu, Meñaka, Zarautz, Pasaia, Astigarraga, Tolosa, Berrobi eta Zestoa; era honetan, Ajangiz eta Mañariako epaiak baino ez dira falta jasotzeko. Ipar Euskal Herriko Herriko Etxeak sartzear diren honetan, gainera, Partzuergoa konbentzimenduz dauden udalerriek osatzea bilatu da, edukiz betetzea.

Lehendakari jaunak egindako proposamena bozkagai jarrita, aho batez izan da onartua, beraz, Ergoienako Udala Partzuergotik aterako da.

SEIGARRENA.- Trantsiziorako plana.

Lehendakari jaunak gogorarazi du egun Udalbiltzaren Batzorde Eragilea hamahiru kidez osatuta dagoela: Alde batetik, partzuergokideak diren herrien zazpi ordezkari (juridikoki ahotsa eta bozka dutenak) eta partzuergokideak ez diren herrietako sei ordezkari (Hautetsien Elkarten Federazioa sortu eta Partzuergokide bezala onartzen ez den bitartean ahotsa bai baina bozkarik ez dutenak). Egungo hamahiru pertsona horietatik, seik ez dute jarraituko, hautetsi izateari utziko baitiote. Gainerako zazpiak prest daude datozen hilabete/urteotan (behintzat trantsiziorako) jarraitzeko.

Lehendakari jaunak eta lehendakari orde andreak ekainaren 15ean hautetsi izateari utziko diotenez, trantsiziorako planteatzen den proposamena azaldu du Lehendakari jaunak. Ekainaren 15etik aurrera eta Kontseilu Nagusi eta Batzorde Eragile berria osatu arte lehendakari eta lehendakari orde berriak aukeratzea proposatzen da, behin behinekotasunez, beraz (juridikoki proposatzen diren izendapenek erabateko efektuak izango balituzkete ere). Ondoren, 2019ko udal hauteskundeak eta gero eratzen den Kontseilu Nagusiak aurreko erabakien berrestea edo bestelako erabakiak hartuko lituzke. Besteak beste, Batzorde Eragile berriaren hautaketa egingo luke Kontseilu



Nagusi berriak.

Azaldutakoagatik, gaur egun Batzorde Eragileko kide diren bi pertsona izendatzea proposatzen da hurrengo Kontseilu Nagusia eratu arte lehendakari eta lehendakari orde izateko.

Horretaz gain, zuzendariaren lanpostua konfiantzazkoa dela azaldu du Lehendakari jaunak. Bere egunean, azken urteotan zuzendari izan den Arantza Ruiz de Larrinaga andrea Luis Intxauspe jaunarekin batera hasi zen; orain konfiantzarekin batera, berak ere lana bukatu nahi du.

Komunikazio teknikari lanpostua ere konfiantzazkoa da. Bere izendapena ekainaren 15a arte egin dago, baina gerora ere berak jarraitzea proposatzen da, lanari segida eman ahal izateko.

2015eko hauteskundeetan testuinguruan trantsizioa aurreikusi ez zela gogorarazi du Lehendakari jaunak. Esan duenez, oso kostata egin zen orduko trantsizioa eta garai hartan izandako arazoak ez errepikatzeko proposatzen den sistema dela azaldu du.

Hortaz, honakoa izan da proposatu den akordioa:

- a. Jabi Asurmendi jauna behin behineko Lehendakari izendatzea. Izendapen honek 2019ko ekainaren 15ean izango luke efektua.
- b. Andoni Gartzia jauna behin behineko Lehendakari orde izendatzea. Izendapen honek 2019ko ekainaren 15ean izango luke efektua.
- c. Jabi Asurmendi jauna behin behineko zuzendari izendatzea, iraila arte dedikaziorik gabe. Izendapen honek 2019ko ekainaren 15ean izango luke efektua.
- d. Arantza Ruiz de Larrinaga andrearen dedikazioa 2019ko ekainaren



30a arte luzatzea, Jabi Asurmendi jaunarekin erreleboa behar den bezala egin ahal izateko.

- e. Inhar Iraizotz jauna behin behinekotasunez komunikazio teknikari izendatzea, 2019ko ekainaren 15etik aurrera izango luke efektua.
- f. Hartutako erabakiok publikatzeko baimena.

Gaia eztabaidagai jartzerakoan, Ataunek galdetu du hauteskundeak eta gero Udaltzako Partzuergoarentzako izendapena nola egin behar den, herriek egin behar duten edo Udaltzako Partzuergoak galdetuko duen. Herri bakoitzeko Udaltzak Udaltzako Partzuergorako ordezkari nor izendatzen duen erabaki beharko duela erantzun zaio, gainerako udalerriaz gaindiko erakundeetarako bezala. Bestalde, hautetsiak, ez ordezkari bezala, hautetsi bezala baizik, Udaltzako Partzuergoari atxikitzen zaizkio legegintzaldi hasieran; Partzuergoak berak horren inguruko kanpaina egingo du.

Aho batez izan da onartua, beraz, 2019ko ekainaren 15etik aurrera Jabi Asurmendi jauna izango da Udaltzako Partzuergoko Lehendakari eta zuzendari, Andoni Gartzia jauna izango da lehendakari orde, Arantza Ruiz de Larrinaga andrearen dedikazioa 2019ko ekainaren 30a arte luzatuko da eta Inhar Iraizotz jaunaren kontratuzko harremanak ekainaren 15etik aurrera ere jarraituko du.

ZAZPIGARRENA.- Estatutuen eguneratzea.

Lehendakari jaunak egin du puntu honen azalpena, emailez bidalitako dokumentazioaren gainean. 2015ean azken aldiz estatuak eguneratu eta publikatu zirenetik hainbat aldaketa izan dela eta, gehiena eguneratzeak direla azaldu du, salbu eta honako proposamenak:



Lehenik, gaur egun kuota martxorako ordaindu behar dela jasotzen dute estatutuek. Aurrekontuak egitean onartzean eta kitapenekin nahiko zaila dela eta, epe hori ekaina arte luzatzea proposatzen da.

Bigarrenik, ekaina eta abendua artean ordaintzen ez duenari %10eko errekergoa eta urte naturalaren barruan ordaintzen ez duen herriari %30ekoa ezartzea proposatzen da.

Beraz, honakoa da bozkagai jartzen den proposamena:

1. Kuota zati bakarrean ordaindu behar izatea: Dagoeneko herri guztiek hala ordaintzen dutelako.
2. Kuota martxorako ordaindu behar izan beharrean, ekainerako ordaindu behar izatea. Aho batez.
3. Kuota ekainerako ordaintzen ez duten udalerriei %10eko errekergoa jartzea: Zentzua ordainketak urtearen lehen erdian egitera bultzatzea da, likidezia arazorik izan ez dezagun. Denak kontra, bi abstentzio.
4. Arrazoitu gabe kuota urte naturalaren barruan ordaintzen ez duten udalerriei %30eko errekergoa ezartzea. Lau abstentzio, besteak kontra.
5. Partzuergoa osatzen duten herrien zerrendaren eguneratzea.
6. Kuota sistemaren eguneratzea: Aurretik erabaki bezala, biztanleriaren arabera, tramuka eta lurralde juridiko-administratiboaren araberako kopuruen sistema egonkortzea, estatutuetara eramanez.



Gaia eztabaidagai jartzerakoan, proposamenak zailtasunak ekar ditzakeela hitz egin da, aurrekontuan jasotakoa, esaterako, mila euroko partida bada, kontu-hartzaileek gehiago ordaindu nahi izango ez dutelako, dirurik ez dagoela esanez. Errekargorik ezartzekotan, urte naturalean ordaintzen ez duenari baino ez jartzea proposatzen da. Legez interesak aplikatu beharra zaizkiela gogorarazi du Astigarragako ordezkariak, beraz, bere ustez errekaragoaren beharrik ez dagoela esan du.

Ordaindu beharreko ohiko kuoten gogorazpena kontu-hartzaileei bidaltzea planteatu da, formaltasuna eman eta sistematizatzea, Udalbiltza Partzuergorako ordezkaria den hautetsiaren esku soilik ez gelditzeko.

2., 3. eta 4. puntuak banaka bozkatu dira, beste guztiak aldi berean.

Lehenengo bozketan 1., 5. eta 6. puntuak aho batez izan dira onartuak.

Bigarren bozketan ere, hau da, 2. puntuari dagokionean, aho batez izan da onartua.

3. puntua atzera bota da, bi abstentzio eta kontrako 18 bozkarekin.

4. puntua ere atzera bota da, lau abstentzio eta kontrako 16 bozkarekin.

Laburbilduz, aurrerantzean ohiko kuota zati bakarrean ordaindu beharko da, urte naturalaren ekainerako, beranduenez, baina atzeratzen diren udalerriei ez zaie inolako errekarorik jarriko, interes legalez gain. Partzuergoa osatzen duten herrien zerrenda eta kuota sistemaren eguneratzea egingo da estatutuetan eta hauek publikatuak izango dira, honako erabakiek erabateko efektu juridikoak izateko.



ZORTZIGARRENA.- Galderak eta iradokizunak.

Lehendakari jaunak azaldu du idazkaria haurdun dagoenez, irailetik aurrera ordezkapena beharko duela. Bere egunean poltsak egin ziren, baina egun ezin da hortik tiratu, poltsetan gelditu ziren pertsonak dagoeneko lanean ari direlako. Beraz, bi aukera daude: Poltsa berriak egitea edo partzuergokide diren herrietako idazkari-kontuhartzaileek jarduna akumulatzea, Partzuergoko idazkari-kontuhartzailea %30eko jardunean baitago. Herriren batek amatasun baja hori akumulazio bidez egiteko aukera ikusten badu, zuzendari andreari deitzeko eskatu du Lehendakari jaunak.

Amaitu aurretik, Lehendakari jaunak gaur egungo Batzorde Eragilea dagoenetik egindako ibilbidea komentatu du. Esan duenez, 2015eko hauteskunderen ondoren iritsi ziren Batzorde Eragilerak, aurretik egondako ekipoarekin trantsizio politikorik izan gabe. Ekipo teknikoaren bitartez sortu zen hautetsi ekipo berria eta 2016ko bukaeran egin zen Batzar Orokorrean izan zen aukeratua Batzorde Eragile berria, juridikoki ondorengo Kontseilu Nagusian hautatu bazen ere. Garai hartan, egoera ekonomikoa oso larria zen, likidezia arazoak zeuden, 200.000 euroko aurrekontuari ezin erantzun. Herrietara Partzuergokide egiteko deiak egitea izan zen lehenbiziko ariketetako bat.

Batzorde Eragile berriak Udalbiltza Partzuergoaren norabidea, zereginak eta printzipioak erabakitzeko apustua egin zuen, beste indar batekin aritzeko. Horretarako, Udalbiltzan Bagabiltza prozesua egin zen, zeinetan ia bostehun hautetsik parte hartu baitzuen. Printzipio, proiektu eta lan ildo batzuk erabaki ziren hala, orain martxan ari direnak.

Gaur egun 500.000 euro inguruko aurrekontua dago, harreman instituzionalak normalizatzeko esfortzu handia egin da eta fruitu batzuk eman ditu: Hiru egitura juridiko-administratiboetako gobernuekin, diputazioekin, Eudelekin, eta beste erakunde



batzuekin harremanak egin dira. Harreman horiek batzuetan elkarlanean eragina izan dute eta besteetan harremanak normalduta daude eta elkarlanerako aukera irekita dago.

Udalbiltza beste momentu batean dago. 2015ean egondako larrialdia berriro ere egon ez dadin trantsizioaz ere hitz egiten ari da oraingoan, esperientzia transmitituko da eta zereginak askoz ere argiago daude.

Batzorde Eragile berria osatzera animatzeko eskaria luzatu die bertaratutakoei, baita hautetsi berriak izango diren herrikideak proiektu honetan parte hartzera gonbidatu eta animatzeko eskatu ere.

Berarekin batera aritutako Batzorde Eragileko kideei aitortza egin eta eskerrak emanez amaitu du hitzartzea Lehendakari jaunak.

Hurrengo Kontseilu Nagusia eta gero berrespenerako Batzar Orokorrean elkartzeko deia eginez eman dio amaiera bilerari Lehendakari jaunak, arratsaldeko zazpi eta erdiak direnean.

IDAZKARIAK